

BIRUSAK, ETSAI ARRISKUTSUAK

Azken berriek diotenez, mundu osoan zehar ordenadoreak kutsatzen ari den birus bat azaldu da. Nola ebitatu izurrite honetan kaltetu izatea?

Ordenadore-birus hau makina kutsatzeko gai den programa-zati bat besterik ez da. Programa-zati hau programa *pirata* batean txertaturik egoten da. Hau martxan jartzen den une berebean, sistema aldatu egiten da eta askotan disko gogorreko informazio guztia ezabatzen duen errutina bat ere abiartzen da.

Nahiz eta birus honen jatorria ezezaguna izan, abiadura bizkorrez ari da batera eta bestera zabaltzen.

Birusa, COMMAND.COM fitxategian egoten da. Ordenadorea kutsatutako disket batetik abiatuz gero, nahikoa izango da TYPE, COPY, DIR edota beste edozein komandoz beste disket bat atzitzea berau arriskutan jartzeko. Disket horrek



COMMAND.COM fitxategia baldin badauka, birusa bertan kopiaturiko da disketa kutsatuz. Hau gertatzen den bakoitzean, abiorako erabili den programan kontagailu bat gehitzen joango da. Kontagailu hau 4ra iristen denean, ordenadorean sartutako edozein disketetako informazioa ezabatu egingo da bapatean. Beraz, arazoren bat dagoela konturatzen gainerako, birusa zabaldua dugu.

Hala ere, badago hau ebitatzeko modu bat. Disket bat kutsatuta dagoenaren susmoa baldin badugu, nahikoa izango da ordenadorea disket honetatik abiatzea eta idazketaren kontra babestutako disket bat atzitzea. Zer lortzen da honekin? Azken disket honetan birusa kopiatzeko saio bat egiten bada, sistemak errore bat emango du, disket horretan idazterik ez dagoela adieraziz. Horrela jakin ahal izango dugu abiorako erabili dugun disketak birusa zeraman ala ez.

Beraz, ez da tontakeria izaten disketei idazketaren kontra babesteko etiketa ipintzea.

Birus honen eraso, disketek nahiz disko gogorrek jasan dezakete.

Hau dela eta, komenigarria izaten da segurtasun-kopiak ateratzeko ohitura hasieratik mantentzea, askotan alferrikako lana iruditzen arren. Honelako hondamenaren aurrean irtenbide bakarra izan baitaiteke.

SEGURTASUN-KOPIA AZKARRAK

Ekipo informatikoa instalatzen dugunean, berehala jabetzen gara segurtasun-kopien garrantziaz. Baina disko gogorra baldin badaukagu, datu- eta fitxategi-kopurua handiagotzen doan neurrian astunagoa bihurtzen da lan hau eta pixkanaka zabaltzen hasteko joera izaten dugu gehienok. Informazio edo datu inportanterik galtzen ez dugun bitartean oso ondo, baina horrelakorik gertatzen denean izaten dira lanak.


DiskFit utilitatearen helburua, lan hau xamurtzea da. Lehenengo segurtasun-kopia egin ondoren, oso denbora gutxi beharko du ondorengoak egiten; fitxategi berriak eta aldaketaren bat jasan dutenak bakarrik eguneratuko bait ditu besteak ukitu ere egin gabe.

Network DiskFit sareetan erabiltzeko da. Erabiltzaileak bere disket propioen nahiz konpartitutako diskoko zenbait fitxategien kopiak egin ahal izango ditu.

Fitxategi-multzo konkretu baten edota datu edo fitxategi zehatzen segurtasun-kopiak atera daitezke bietako edozeinetan.

PAGEMAKER AUTOEDIZIO-PROGRAMA

Autoedizioaren mundua zabaltzen doan neurrian, ordenadoreari erraztasun eta bitarteko gehiago eskatzen zaio. Hasieran testua lantzea nahikoa baldin bazen ere, geroago irudiak eta grafikoak egin ahal izatea beharrezkoa ikusi zen eta azkenean, nola



ez, orrialdeen muntaia; hau da, testu eta irudien banaketa etab. egiten laguntzen duten programak asmatu dira. PageMaker dugu hauetako bat. Hasiera batean Apple Macintosh eta Laser Writer inprimagailuarentzat garatua izan zen, baina jadanik kalean daude PC-etarako sortu den bertsioak eta Apple Macintosh-entzat sortu den 2.0 bertsio berria.

PC-etarako sortu den bertsioak, Microsoft-en

Windows ingurunean funtzionatzen du. Aplikazio desberdinetako grafikoak onartzen ditu; esate baterako Windows Paint, PC Paint Brush eta PC Paint aplikazioetan egindako grafikoak. PageMaker PCk beste utilitate gehigarri batzuk ere eskaintzen ditu: hitzen zatiketa automatikoa etab. Pakete honekin 128 orrialdeko dokumentuak sor daitezke.

Apple Macintosh-entzat sortu den PageMaker 2.0 bertsioak, 20 funtzio berri baino gehiago ditu; beraietako askok erabiltzaileen eskaerei erantzun asmoz sortuak. Hauen artean kerning-a, hitzen zatiketa automatikoa, bi orrialde aldi berean ikusteko posibilitatea, 128 orrialdeko dokumentuak sortzeko aukera eta PC bateragarrientzat plazaratutako testu-lanketen bidez sortutako dokumentuekin duen bateragarritasuna dira aipagarrienak.

Bestalde, Apple Macintosh-entzat PageMaker 2.0 bertsioaren salmentaprezioa 99.000 pta.koa da.

MACTABLET

Hona hemen Apple Macintosh-en xagua erakusle modura erabiliz irudiak egiterakoan dauden mugak gainditzeko komertzializatu den MACTABLET taula grafikoa. Dagoeneko Macintosh-en xaguaz baliatzeko ohitura zuten pertsonak honen abantailaz oharturik zeuden. Baina hala ere zirriborro, irudi, mapa edo irudi artistikoak egiterakoan, somatzen ziren hainbat zailtasun. Zailtasun hauei irtenbide eroso eta irudikatu nahi denaren kontrol zehatza ematea da MACTABLET taula grafikoa helburua.

